



REPLAY

DAVID SAFIER



FUNDAZIOA

LETRAK
ETA
FUTBOLA

LETRAS & FÚTBOL



Ezkondu arrunt baino arruntagoa zen Javi, kirol-irakasle arrunta ogibidez, eta oso gorputz arrunta zeukan hogeita hamabost urte izateko, garagardo-sabela eta guzti. Era arrunt batean ere zoriontsua izan bazitekeen ere, ez zegoen pozik: aparteko bizitza izateko aukera galdu izana deitoratzen zuen.

Horregatik, apur bat haserre egon ohi zen gimnasioan umeei klasea ematen zienean eta horiek, salbuespenik gabe, beren mugikorretako eta kontsoletako teklatuak beren gorputzak baino hobeto kontrolatzen zituztela ohartzen zenean. Horregatik ere haserre egon ohi zen Bilboko kaleetatik motoz zebilenean. Eta horrexegatik, batzuetan, etxean ere haserre egon ohi zen, nahiz eta Maitek, bere emazteak, asko maite zuen.

Itxuraz arrunt baino arruntagoa zen egun batean –baina apartekoa zinez–, Javi heldu zen etxera ikastetxetik, Maite bainuontzian (benetan liluragarria) ikusi eta esan zuen malenkoniak:

—Beste sasoi batean, bainuontzira jauzi egin eta amodioa egingo genuen etengabe.

Maitek, Javi bezala, azken urteotan apur bat loditu zenak, esan zuen irribarrez:

—Jadanik ez gara elkarrekin bainuontzian sartzen.

—Barruan ura egotea nahi izanez gero, ez –arrazoia eman zion Javik–. Zure belaun lesionatuarekin...

—Eta zure bizkarrarekin...

—... bihar traumatologoarenean egongo ginateke –hasperen egin zuen Javik.

Maitek Javi malenkoniatsuari begiratu zion. Biek hamalau urte zituztenean, ikastetxeko komunitan lehenengo aldiz topo egin

zuten egunean (hanka sartuta, emakumezkoenetara joan zen Javi) bezain maiteminduta.

—Telebista ikustera noa –esan zuen Javik eta irten zen bainugelatik.

Maitek begiratu zion ikaratuta eta oihu egin zuen:

—Ez, ez egin hori! Hator bainuontzira!

Beranduegia zen. Javi bazegoen telebista aurrean, jada piztu zuen. Eta Athletic Club bere izar berria aurkezten ari zela ikusi zuen: Bernedo. Klubean jokatu zuen bere karreraren hasieran, baina saldu egin zuten bi urteren ondoren eta FC Barcelona, FC Bayern München eta Chelsea taldeetan karrera egin eta gero, munduko txapeldun gisa itzuli zen etxera. Telebistak Bernedoren hastapenen irudiak erakusten zituen, ospetsu bihurtu baitzen Espainiako Gazte Txapelketaren finalean bost gol egiteagatik. Ez litzatekeen hor egongo entrenatzaileak beste jokalaria bat, taldeko burua, egotzi ez balu partida jokatu baino lehen.

Jokalaria hori Javi zen.

Gutziz zapuztuta, telebista itzali zuen, Maiteri agur esan gabe irten zen etxetik, motoan igo eta Bilboko kaleetatik ibili zen, Athletic-en elastikoa zeraman Bernedoren argazkiz Beteta. «Ongi Etorri Bernedo!» irakur zitekeen karteletan.

Javik deitoratzen zuen etorkizun handiko karrera izateko aukera pikutara bidaltzea. Bosgarren aldiz –bai, benetan, bosgarren aldiz– porru bat erretzen harrapatu eta gero, entrenatzaileak egotzi egin zuen taldetik. Alferrik galdu zituen klubak bere talentuagatik eman zizkion aukera guztiak. Orain esaten zion bere buruari bera izan zitekeela munduko izarra, aspaldian estutasun ekonomikoengatik saldu behar izan zuen baina edonon egonda ere maite zuen klubera itzulitako hiriko seme iriolea.

Baina beranduegia zen ordurako. Javik futbola gorrotatzen zuen. Ez zen zelaira joaten eta ez zituen partiduak telebistaz ikusten. Fatxada eta erakuslehiu bakoitzean Bernedo ikusteaz kokoteraino, ziztu bizian irten zen Bilbotik Artxandarantz, ezerk ere futbola gogoraraziko ez zion leku batera. Han, errepidearen alde batean zegoen egurrezko santu baten aurretik igaro zen.

Harritu zuen irudi hori inoiz ikusi ez izanak, nahiz eta segur aski aspalditik leku horretan egon eta bera bertatik askotan igaro izan. San Dionisio irudikatzen zuen, amorrutik ez ezik, larritasunetik ere babesten zuena.

Imajina irribarretsuari begiratzean, apur bat zoritxarrekoago sentitu zen. Hura ere bera baino zoriontsuagoa zen! Horregatik, santuaren aurretik igarotzean, ezin izan zuen bere burua kontrolatu eta mihia atera zion. Eta zin egingo zuen betertzetik ikusi zuela san Dionisiok... erdiko hatza ateratzen ziola?

Ez, ezinezkoa zen. Irudipenak zituen.

Artxandako errepideetatik ziztu bizian ibiltzen aritu zen arratsalde osoan. Bilbora itzuli zen eguzkia sartzen hasi zenean. Paseoa gorabehera, frustrazioz beterik zegoen oraindik. Horrela izan ez balitz, agian konturatuko litzatekeen hiria desberdina zela: 90eko hamarkadako moda ergelaren arabera janzten ziren oinezkoak, ez zeramaten mugikorra eskuan eta beren lagunak aurpegira begiratzen zuten kafetegietan eta jatetxeetan. Dendakateek ez zuten hirigunea hartu, ez zegoen eraikuntza modernorik Abandoibarran eta Inagurazio ekitaldia iragartzen zuen kartel bat zegoen esekita Guggenheim Museoa.

Javi ez zen horretaz ohartu. Baina argi eta garbi izan zuen zerbait arraroa gertatzen zela, etxera heldu eta bere aita (pisuaren jatorrizko jabea, zuela hamar urte hildakoa) atean ikusi zuenean.

—Aita...?! —zezeldu zuen.

—Nor zara zu? —galdetu zion aitak.

Javik ezin izan zuen erantzun. Emozioak gainezka eginda, negarrez hasi zen. Ezin zuen ulertu zer gertatzen ari zen. Zenbatetan amestu zuen aita berriro ikustea! Ikaragarritzko poza hartuta, eskutik heldu zion eta xuxurlatu zuen:

—Aita, bizirik zaude...

Baina aita aldendu egin zen berarengandik, oihuka:

—Alde hemendik, eroa! —eta danbateko batez itxi zuen atea.

Artean malkoak begietan eta sinesgogor begiratu zuen Javik ingurura: eskailera zaharra zen, bi milako hamarkadako

